...eta kitto!

815 zkia. 2012-VII-20 ASTEKARIA




# Ander Romarateren Uda Olinpikoa


EUKI ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99



AUTOAREN ASEGURUA preziorik onenean

DOKTOREAK:
Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

**Kasu konplexuetako eta hezur eta hortzoi gabeko inplantologian ADITUAK**

**PUNTA-PUNTAKO inplantologia, OSTEOINKORPORAZIO teknika BERRIA erabiliz**



# Inplantologia

*Prezio bereziak!!!*

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostegunera:
10-14 / 16-20h
Ostiraletan: 10-14 / 15-19h



RPS 04/02

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA:**
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**FAXA:**
943 20 28 72
**Astekariaren E-MAILak:**
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
**Elkartearen E-MAILak:**
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Itziar Albizu
Maider Aranberri
Ekhi Belar
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA:**
Koldo Mitxelena
**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**
Jose Luis Gorostegi
**ARGAZKI ARLOA:**
Leire Iturbe, E. Belar
eta S. Hernandez
**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu
Belen Ulazia
**Tfnoa:** 943 20 67 76
**AZALEKO ARGAZKIA:**
Ander Romaratek lagata
**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ainhoa Luz
**TIRADA:**
*8.000 ale*
**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A:**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA:**
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*


## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ISTAR/IZTAR LEHENGUSU.-** Bi pertsona iztar lehengusuak dira bien gurasoak elkarren artean neba-arrebak direnean. Gaztelerazko *'primo hermano'*. *"Bixen aittak anaiak ziranetik eurak istar-lehengusuak".*
**ISTARRIXA/IZTARRIXA ZERRAU.-** Eztarria urratu, itxi, *'afonia'* izan. *"Hainbeste orruagaz, istarrixa zerrau jata".*

## %44ko diru-laguntza jaitsiera hanka-sartzea da, etorkizuna baldintzatzen du-eta

Euskara elkarteek euskal komunitateari egindako ekarpen handienetako bat herri aldizkarien sorrera izan zen. Urteak daramate aldizkariek herrian euskaldunoi gertatutakoen berri ematen; baita …eta kitto! bera ere.

Herrigintzaz sortutako aldizkariek ekarpen ikaragarria egin dute euskaratik eta euskaraz komunitatea indartzeko. Administrazioek beti izan dute herritik sortutako euskal hedabide hauek laguntzeko zeregina. Administrazioek badutelako, euskaraz bizitzeko bidean, politikak aurrera eraman eta neurriak hartzeaz gain, euskalgintzari laguntzeko betebeharra.

Eusko Jaurlaritzak, dagokion moduan, urtero lagundu du diruz …eta kitto! astekaria. Martxoko batzar nagusian ahalegin handia egin beharreko urtea izango zela onartu genuen, Eusko Jaurlaritzak berak % 10eko jaitsiera aurreikusteko esan zigulako, besteak beste.

Baina sorpresa ekainean heldu da: Eusko Jaurlaritzaren jaitsiera, % 10ekoa beharrean, % 44koa izango dela ikustean. Aurreikusitakoa baino 26.400€ gutxiago. Jaitsiera horrek, astekaria bera kolokan jartzeaz gain, elkartearen beraren urteko helburuak ere kinka larrian jarri ditu.

Eusko Jaurlaritzak gure aldizkaria ondo baloratutako produktua dela jakinarazi izan digu beti. Zer gertatu da orain % 44ko jaitsiera emateko? Zer baloratu du Jaurlaritzak?

Eskualdeko euskara elkarteak elkarrekin gabiltza etorkizunaren inguruan eztabaidatzen. Eskualdearentzat onena izango den eta eskualdeko euskal komunitateari ekarpenik onena egingo dion produktua diseinatzen. Baina momentuan euskalgintzak duen tresna garrantzitsuenetako baten kontra jotzea, dirulaguntzak jaitsita, estrategikoa baino, administrazioaren hanka-sartzea da. Produktua kolokan jartzeaz gain, elkartearen indarra sasoi berri bati ekiteko ahultzen duelako. …eta kitto! zein euskalgintzaren kontrako erasotzat har dezakegu hori.

Hala ere, …eta kitto!ren helburu nagusia Eibarko euskal komunitatea indartzea eta herrian euskaraz bizitzeko pausoak ematea da, bere esku dauden guztiak eginez. Horregatik, aurten ahalegin berezia egin eta, orain arteko bidetik, Eibarren ekarpena egiten jarraituko dugu. Gure esku dagoen heinean, euskaraz informatzen segituko dugu.

**IGONE LAMARAIN COBO**
*...eta kitto!-ko Euskara Elkarteko presidentea*

### ERREDAKZIOAREN OHARRA

Esku artean duzuen **ale honekin amaitzen dugu ikasturtea**.
**Hurrengoa**, oporretatik bueltan eta Arrateko jaien aurretik,
**irailaren 6an (eguena)** jaso ahal izango duzue zuen buzoietan.
Bitartean, ondo pasa oporrak eta bueltan ikusi arte!!!


EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

gizarte kutxa

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*

**asteko**

**20.397**

**datua**

euroko batezbesteko errentia daka Eibarko biztanle bakotxak urtian eta probintziako erdi aldian dago: donostiarrak 26.000ra heltzen diran bittartian, pasaitarrak 17.000ra ez dira iristen. Krisixa hasi zanetik bi urtera, gipuzkuarrok 778 euro galdu doguz urtian batezbeste.



## Lau ordezko alkate eukiko dittugu udan

**URTE SASOI HONETAN OHIKUA DAN MODUAN**, Miguel de los Toyos alkatia oporretan izango dan egunetan hainbat ziñegotzik ordezkatuko dabe, txandaka bere kargua beteta: uztaillaren 28tik abuztuaren 15era Pedro Escribano izango da ordezko alkatia, abuztuaren 16tik 19ra Mª Jose Telleria, abuztuaren 20tik 26ra Eneko Andueza eta abuztuaren 27tik iraillaren 7ra bittartian Arcadio Benítez. Oporrak amaittuta, De los Toyos Arrate egunian bueltauko da biharrera.

## Hainbat bihar egingo dira herrixan



Estaziño kalian egingo diran lanak hurrengo hillabetiak hartuko dabe. / Silbia Hernandez

**URTEROKO MODUAN, AURTEN BE UDAKO ASTIAK HERRIXAN** hainbat bihar egitteko aprobetxauko dittue, bestiak beste sasoi honetan urtian zihar baiño jende gitxiago ibiltzen dalako. Egingo diranen artian potolonuetakua Amaña-Ardantza bittartian trenbidia bikoizteko hasitta daguazen biharrak dira, kostauko dabenarengaittik (14'9 millioi euro) eta amaitzen tardauko dabenarengaittik be (15 hillebete). Gaiñera, ez dira horrek han inguruan egingo dittuen bakarrak, udan egingo dabelako Amañatik Torrekuara juateko pasabide barrixa be. Eta abuztuan hasiko dira Estaziño kalia barriztatzeko biharrak. Kalia oiñezkuendako erosuagua bihurtzeko biharrak 211.097 euroko presupuestua dake eta 4 hillebetian amaitzia dago aurreikusitta. Estaziño kalia urbanizatzeko biharrak egiñ ahal izateko, datorren astelehenetik aurrera eta hille biko tartian kalia trafikuarendako moztuta egongo da eta, jakiña, eziñ izango da bertan aparkau. Eta Milafloreseko akzesuak hobetzeko biharrak be hasitta dagoz honezkero: Arrateko errepidetik barrixora doian sarreria barriztatzeko 155.610 euro gastauko dittue.

Horrekin batera, beste obra txikixago batzuk be egingo dira datozen egunotan: Txontan, serrerixa inguruan, kirola egitteko gunia preparauko dabe; Urkizun, Agiñaspi tabernako espaloia zabalagua egingo dabe; Blas Etxeberria, Asua Erreka eta Txaltxa Zelaixan (epaitegiko kurba inguruan) asfaltaua barriztatuko dabe; epaitegiko parkia tapatzeko biharrak hasiko dittue; Arrateko kolonixia konponduko dabe; ikastetxietan biharrezkuak diran mantenimiento lanak egingo dira; mendi inguruetako bidiak garbittuko dittue; eta Gipuzkoako Urak-ek Arrateko ur zikiñak Azittaiñeraiño eruateko biharrak egingo dittu.

## Udarako eskintza berezixak kalian bertan



Gaur 20.00ak arte egongo dira eskintzak kalian. / Ekhi Belar

**EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIAK UDAKO MERKEALDI BEREZIXEN FERIXIA** antolatu dau seigarrenez eta, horren harira, eguazten goiziaz geroztik eta gaur 20.00ak arte herriko 26 establezimenduk euren produktuak prezio berezixetan eskintzen dihardue Toribio Etxebarria kalian. Ekimena Eibarko Udalarekin alkarlanian antolatu dabe eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza, Industria, Barrikuntza eta Turismo saillak diruz lagunduta dago. Azokan, bestiak beste arropak, oiñetakuak, lentzerixia, kirolerako ekipamendua, konplementuak, dekoraziñorako elementuak, kafia, tea eta txokolatia erosteko aukeria dago.

## Murrizketen kontrako protestia

**EGUAZTEN ARRATSALDIAN UNTZAGAN, UDALETXIAREN PARIAN** alkarrataratzia egiñ eben hainbat herrittarrek, Gobernuak ezartzen dihardauzen murrizketen kontra protestia egitteko. Bertan zabaldu eben pankartan "Bankarentzat dirua herritarrontzat pobrezia. No a los recortes!" esaldixa eguan idatzitta.



## Ordutegi berezixak Eusko Treneko zerbitzuetan

EuskoTrenen Debabarrenako autobusen udako ordutegixa astelehenian, hillaren 23an ezarriko dabe eta iraillaren 2ra arte egongo da indarrian. Tarte horretan, ordutegi barrixari segiduko detsen EuskoTreneko autobus lineak honetxek dira: Lurraldebus sisteman sartutako Mallabia-Deba-Ondarroa, Deba-Itziar, Ermua-Azpeitia, Eibar-Soraluze-Mendaroko Ospittala eta Eibar-Elgeta eta Udalbus sisteman sartutako Azittaiñ-Amaña eta Eibar-Arrate.

**Zapatu gabeko autobusak**

Debabarrenako autobusen udako zerbitzuan, bestalde, urte osuan eskintzen diran Ermua-Ondarroa eta Eibar-Azpeitti tartietan zapatu gabetako zerbitzueri eutsiko detse.

Ermua-Ondarroa (Eibartik urteeriak 00.25, 02.25, 04.25 eta 05.55ian), Ondarroa-Ermua (Ondarrutik urteeriak 23.45, 01.45, 03.45 eta 05.45ian), Eibar-Azpeitia (Eibartik urteeriak 01.30, 03.30 eta 05.30xetan), Azpeitia-Eibar(Azpeittitik urteeriak 00.45, 02.45 eta 04.45ian).

Informaziño gehxiago bihar dabenak Euskotrenen 902 543 210 telefono zenbakira deittu edo www.euskotren.es webgunera jo leikie.

**Jaixetarako tren berezixak**

Horrez gaiñ, Euskotrenek Bilbo-Deba artian gabeko zerbitzu berezixa eskinduko dau bixar (hillak 21) Amorebieta eta Ermuko jaixak dirala eta: Bilbo-Deba noranzkuan, Atxuri-Bilbotik Debarantz urteeriak 23.50, 01.50, 03.50 eta 05.50ian izango dira; Amorebietatik 23.50 (Zaldibarreraiño), 00.50 eta 07.13an (Durangoraiño); eta Ermutik Debarantz 22.15, 23.53, 01.53, 03.53, 05.53 eta 07.23an (Eibarreraiño). Eta Deba-Bilbo noranzkuan Debatik Atxuri-Bilborantz urteeriak 01.35, 03.35, 05.35 eta 07.19xan (Elgoibartik Durangoraiño) izango dira; Zaldibar eta Durangotik Amorebietarantz 00.20 (Zaldibartik), 23.32 eta 06.45ian (Durangotik); eta Debatik Ermurantz 23.05, 00.35, 02.35, 04.35, 06.35 eta 07.35ian (Eibarreraiño).



## Debaldea Bizirik martxia Eibarrera aillegau zan

**AURREKO ASTEKO EGUENIAN, ARRATSALDIAN AILLEGAU ZAN EIBARRERA** "Debaldea Bizirik. Enplegua eta eskubidien alde, burujabetza ekonomiko eta soziala" lemari jarraittuta LAB sindikatuak deittutako martxia. Bizitzen dihardugun egoera ekonomikuaren gaiñeko salaketia egiñ eta konzientziak astintzeko asmuari jarraittuta egindako martxiak goizetik ekin zetsan bidiari, zutabe bittan banatuta (Eskoriatzatik Eibarrera eta Mutrikutik Eibarrera). Herri batetik bestera bizikletan ibilli ziran eta herri-barruan, barriz, batzuk bizikletan segidu eben ibilbidia eta beste batzuk, barruz, oiñez. Zutabe bixak gure herrixan bat egiñ ebenian, Untzagatik abiatuta manifestaziñua egiñ eben.



## Gero eta on-line tramitaziño gehixago

**UDALIAN INTERNET BITTARTEZ, ON-LINE EGITTEKO AUKERIA** eskintzen daben tramitaziñuen zerrendia gero eta luziagua da eta gaur egunian 15 tramitetik gora Udaleko buleguetara juateko premiña barik egin leikez. Bestiak beste, internet bittartez udaletxera juan barik egin leikiazen tramitiak ordainketak bankuan helbideratzeko eskaeria, jakiñarazpenak jasotzeko helbide fiskalaren aldaketia eskatzia, kanposantuko zerbitzuak tramitatzia, sailkatutako jardueraren baten edo titular aldaketiaren gaiñian barri emotia, hirigintzarekin lotutako konsultak egittia, elbarri daguazenendako aparkatzeko txartela eskatzia edo barriztatzia, udaltzaiñak egindako atestauen kopixak eskatzia edo bestelako eskaeriak presentatzia dira.



## autuan

**18.000 EURO JUBILAUENDAKO**

Udalak herriko jubilau etxien artian 18.000 euro banatu dittu, urtian zihar antolatzen dittuen jarduerak pagatzen laguntzeko. Bakotxari emondako kantidadia bazkide kopuruaren eta antolatzen dittuan ekitaldixen araberakua da: Untzagakuak 6.300 euro jaso dittu, Ipuruakuak 4.860, Beheko Tokiak 4.770 eta Urkikuak 2.070.

**MATSARIXA**

Gureak taldekuak tallarra Matsarixako industrialde barrixan ipintzeko pabillioi bi erosi dabe. Holan, poligono barrixan zabalduko daben laugarren enpresia izango da. Oiñ arte, eraikitzeko daguazen 25.209 metro karratuetatik 3.600 dagoz okupauta.

**LANGABEZIA BEHERA**

Uztaillian langabezia tasak piskat behera egin dau Debabarrenian: 3.683 lagun dagoz biharra topau nahixan, maiatzian baiño 107 gitxiago.

TEEN-AJEA




Debako Milia igeriketa lehiaketa helduen mailan irabazi berri du Martin Aizpirik, baina berak nahiago du igerilekuan aritzea itsasoan baino. 17 urteko eibartarrak oso emaitza onak lortzen dihardu, nahiz eta joan den astean Sevillan jokatutako Espainiako Txapelketan egindakoarekin oso konforme ez gelditu.

## MARTIN AIZPIRI (igerilaria):

# "Igeriketarako igerilekua itsasoa baino hobeto"

***- Joan den asteburuan Espainiako Txapelketan lehiatu zinen. Zer moduz?***

Lehiaketarako oso ondo prestatu nintzen eta gogo handiarekin joan nintzen Sevillara, baina gauzak ez zitzaizkidan nahi bezain ondo irten. Ez nituen emaitza txarrak lortu, baina hobeto ibiltzea espero nuen, zeozer gehiago egitea.

***- Zein probatan jardun zenuen Andaluzia aldean?***

Libre estiloko 50, 100 eta 400 metrokoetan.

***- Sevillan ez, baina Debako Milian zu izan zinen garaile.***

Bai. Debako proba horretan etxean lehiatzen garela esan daiteke. Urbateko igerilari askok hartzen dugu parte, Eibarko jende asko doa ikustera eta oso giro ona bizi dugu. Ni oso gustura ibili nintzen eta, zorionez, irabaztea lortu nuen.

***- Zer duzu nahiago igeri egiterakoan: igerilekuan ala itsasoan jardutea?***

Igerilekuan nahiago.

***- Zergatik?***

Errazagoa delako. Nik ez daukat indar askorik eta, itsasoko olatuekin eta abar, zaila egiten zait arinago mugitzea. Igerilekua egokiago dagokit.

***- Noiztik dihardzu igeriketan?***

Zortzi urte nituen arte Bilbon bizi izan nintzen eta, gero, 10 urterekin, Urbat-Urkotronik taldean sartu eta orduan hasi nintzen igeriketan.

***- Nola prestatzen zara lehiaketarako?***

Urtean zehar egunero ordu bitan zehar egiten ditugu entrenamenduak astelehenetik zapatura, eta egun bitan gimnasioan ere egiten dugu lan. Gero, txapelketak dauden sasoian, ekaina eta uztailean batez ere, egunean saio bi egiten ditugu, goizez eta arratsaldez.

***- Urbateko Ander Romaratek Londresko Joko Paralinpikoetan hartuko du parte. Etorkizunean zuk Joko Olinpikoetan parte hartzeko aukerak ikusten dituzu?***

Ez, ez. Nahikoa daukat Espainiako txapelketetan aritzearekin; gauza handia da hori. Tira, kirolari guztion ametsa da Joko Olinpikoetan parte hartzea, baina ez dut imajinatzen ere halakorik gerta daitekeenik.

publi resa
- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...
PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

*Atzo ekin zetsan Eibar Factoring udako merkealdi berezixak berne martxiari. Gaur itxiko dittu atiak eta, bittartian, herriko 26 dendak euren produktuak prezio berezixan salgai jarri dittue herri erdixan, Toribio Etxebarria kalian, goizeko 10.00etatik arratsaldeko 20.00ak arte.*

# Zelan ikusten dozu Eibar Factoring-a?



### Maitane Ugarteburu
### 30 urte
### komertziala

Lehen aldixa da hona natorrena eta ointxe ekin detsat gauzak begiratziari. Jakin dot Factoring-a zeguala eta zeozer begiratzera etorri naiz, ia zeozer erosteko aurkitzen doten. Oindiok ez dot asko begiratu, baiña pentsatzen dot eskaintza onak egongo dirala.



### Darkys Cruz
### 26 urte
### langabia

Produktuak prezio onian saltzen dirala ikusi dot, nahiko merke, baiña arazua da holan be gauzak erostia gatxa dala, ekonomixia ez dagualako ondo. Dendetatik hona aldia igartzen da, hemen gauzak merkiaguak dira.

### Luis Alberto Narbaiza
### 57 urte
### bihargiña

Egixa esan ez naiz fijatu eskaintza onak daguazen edo ez. Itxura danez aldia dago dendetatik hona produktuen prezixuan, baiña ez naiz larregi fijau. Zeozer topatzen badot, igual erosiko dot, batez be kirol produktuak.



### Jorge Sierra
### 41 urte
### bihargiña

Oso ondo ikusten dot dendek Factoring-a egittia. Oindiok ez dot aurkittu erosteko ezer berezirik, baiña hortan nabil. Aurretik be egonda nago Factoringian eta gauza interesgarrixak aurkittu ahal dirala begittantzen jata.











*Estatuko bost marken jabe: bizkar erako 100 eta 200 metroak eta bular erako 50, 100 eta 200ak. Berlingo Europako txapelketan eta Holandako Mundialetan (6.a izan zen bizkar erako 100 metrotan) jardundakoa aurretik. 17 urte besterik ez ditu eta Sierra Nevadan dago kontzentratuta, entrenamenduak altueran egiteko. "Ohitzea gehiago kostatzen dela" jakinda, gainera, "oso ondo daramat" diosku Olinpiadetan parte hartuko duen Eibarko igerilariak. Ander Romarate hilaren 29an bueltatuko da etxera, "Eibarren sei egun egin eta Bartzelonara bueltatzeko". Han abuztuaren 23ra arte prestaketak egin eta gero, 25ean hartuko du hegazkina Londresera, 29an hasiko diren Joko Paralinpikoetan parte hartzeko.*

# Londreseko Jokoetan izango dugu ordezkaririk

***- Etxetik gutxi ikusiko zaituzte hilabeteotan...***

Badira ni baino gutxiago pasatuko direnak etxetik. Nire kasuan, mesedegarri deritzot ditudan tarteetan etxetik pasatzeari: lagunekin eta etxekoekin egonda, pilak kargatzeko balio dit.

***- Igerilariok ere altuera bila prestatzeko?***

Guztiondako da mesedegarri, globulo gorrien kopurua handitzen delako. Oxigeno guatxiagorekin jardutera ohitzen zara. Dena dela, denboraldi honetan hasi naiz eta bigarren aldia da altueran dihardudala.

***- Zein probatan hartuko duzu parte Londresen?***

Bizkar eta bular modalitateetako 100 metrokoetan. Baliteke erreleboetan ere parte hartzea, baina hori han lortuko ditugun marken arabera izango da.

***- Jokoetara joateko denbora Pontevedrako kluben artekoan lortu zenuen. Asko kostatu zitzaizun?***

Denboraldi hasieran marka lortuko nuen itxaropena banuen, baina kostatu izan zait nire onena ematea. Arazo batzuk izan ditut azken urtean, baina han bi segundo gutxiago egitea lortu nuen. Lana eginda zegoen eta emaitza besterik ez da izan.

***- Zein modalitatean moldatzen zara hobetoen? Izan da bilakaerarik edo aldaketarik zure kirol bizitzan?***


Debako Itsas-milian ere omendu zuten eibartarra.

Progresioa bai eman dela. 2010era arte krol-ean jardun nuen, batez ere. Bizkar eran probatu nuen gero eta Holandako Mundialerako minimoa lortu nuen. Eta iaz bular eran probatu nuen eta hor ere gero eta hobeto moldatu naiz.

***- Domina lortzea urruti ikusten duzu?***

Mundu mailan, bizkar eran nago hobeto kokatuta, baina horko igerilarien maila oso altua da. 18 urterekin ezin dut gehiago eskatu eta finalera iristearekin konformatuko nintzateke. Ea nire marka hobetzen dudan! Helburua eskuratu dut dagoeneko; esperientzia hartzea da hurrengoa.

***- Lau urtetan ikusi gabeko igeriketa lehiaketak ikusteko balio dute behintzat Jokook, ezta?***

Foballa hainbeste jendarteratu denean, igeriketak tarte txikiagoa izan behar, derrigorrez. Hori neri foballa gustatzen zaidala! Dena dela, igeriketak baditu bere jarraitzaileak. Bai nabarmenduko nuela igeriketan jarduteak askoz sakrifizio gehiago eskatzen duela foballean aritzeak baino.

***- Zein izan da igerilari onena zuretzat? Eredutzat baduzu bateren bat?***

Michael Phelps izango da orain arte egon den onena. Orain ere emaitza politak lortuko ditu, Pekinen bezain bestekoak ez badira izango ere, han kristorenak lortu baitzituen. Igeriketa egokituan, Richard Oriberen ibilbidea aipatuko nuke.

***- Zelan ikusten duzu Urbat-en eta zure taldekideen lana?***

Horrelako taldea osatzeak mesede egin digu guztioi eta nik behintzat asko eskertzen dut euren laguntza. Emaitzetan ere, gero eta hobeto dabiltza gainera: Alberdi, Varela, Urkiri... hor badago etorkizuna. Gero eta profesionalago dihardute.


Bizkar erako proban finalera iristearekin konformatuko litzateke Romarate.

# Joko Olinpikoak eta Paralinpikoak

Londreseko Joku Olinpikuak sasoi modernoko 30.ak dira.
Londres da hiriburu bakarra Jokuak hiru bidar antolatzen.
**JULIXUAREN 27-XAN HASI ETA ABUZTUAREN 12-XAN AMAITTUKO DIRA.**
201 herrialdetako 23.900 atleta izango dira parte hartzen.
**26 KIROL-MODALIDADE hartuko dittu:**
**arrauna, atletismua, badminton-a, bela, boleibola, borrokia, boxeua, ekitaziñua, esgrima, eskubaloia, foballa, gimnasia, halterofilia, hockey-a, judua, kanoak, mahaiko tenisa, pentatloia, saskibaloia, taekwondoa, tenisa, tiro olinpikua, tirua arkuarekin, triatloia, txirrindularitza eta uretako kirolak.**



Joko Paralinpikuen 14. ediziñua jokatuko da aurten.
**ABUZTUAREN 29-XAN HASI ETA SETIENBRIAREN 9-XAN AMAITTUKO DIRA.**
175 herrialdetako 4.500 atleta izango dira parte hartzen.
**20 KIROL-MODALIDADE hartuko dittu:**
**arrauna, atletismua, bela, boccia (petanka antzerakua), boleibola eseritta, ekitaziñua, esgrima sillian, foball.5, foball-7, goalball-a (ikusten ez dabenendako foballa), halterofilia, judua, igeriketia, mahaiko tenisa, rugbixa sillian, saskibaloia sillian, tenisa sillian, tirua, tirua arkuarekin eta txirrindularitza.**

## IMANOL MAGRO Berriarekin



Datorren martitzenean joango da Imanol Magro Berriako kazetaria Londresera, Joko Olinpikoen berri ematera. Han izango da abuztuaren 15era arte, bereziki *"euskal kirolariek egiten dutena"* jarraitzeko asmoz. *"Unai Zubeldiarekin noa. Berriak beti lagun bi bidali izan ditu horrelakoetara, baina oraingoan akreditazio bakarrarekin goaz: hau da, ni akreditazio barik"*, diosku eibartarrak. Hori dela-eta, arazo bat edo beste izan dezake Magrok, Espainiako Olinpiar Batzordeak baimen bakarra eman diolako Berriari. Hala ere, itxaropentsu doa lehen ere Londresen egondakoa -*"behin, Aste Santuan"*- eta aurretik lan asko egin dute gauzak prestatzen: *"Gero, egunero iritziak bidaliko ditugu, hango giroa kontatu, elkarrizketak egin..."*. Kirolari handiekin egotea gustatuko litzaioke -Carl Lewis moduko izarrak- eta bereziki saskibaloia -bere kuttunetakoa- eta euskal kirola jarraituko ditu betidanik Joko Olinpikoak *"irauten zuten bitartean eguneko 24 ordutan"* jarraitu izan dituen kazetariak.

## BESTE HIRU EIBARTAR OLINPIADETAN

***1896xan era modernoko Joko Olinpikuak hasi ziranetik, gure herriko hiru kirolarik hartu dabe parte bertan.***



Lehelengua **ZIRIAKO ERRASTI foballarixa** izan zan, 1928ko Ambereseko Jokuetan. Lagun Artean hasi zan jokatzen, handik Unión Deportiva Eibarresara pasatzeko; baiña Alavésen ekin zetsan mailla haundiko ibilbidiari, Quincoces bere kirol bizitzako bikotiarekin. Azken horrekin eta Ricardo Zamora atezaiñ haundixarekin munduko atzekalde onena osatu eban, bai Real Madrillen eta baitta Espaiñiako selekziñuarekin be. Hamalau bidar izan zan internazionala eta, gerria amaittuta, Banco Guipuzcoanuan egiñ eban biharra. Eibarren hil zan 1984an.





Hirurogei urte pasau bihar izan ziran Eibarren jaixotako beste atleta bat Olinpiadetan ikusi arte: 1988xan, Seulgo Jokuetan, **MAITE ZUÑIGA**k 800 metroko finalian 7. postua lortu ebanian. Ez ziran izan **atleta** horren Joko bakarrak: handik lau urtera, Bartzelonan 1992xan, seigarren postua eskuratu eban 1.500 metroko distantzian; eta 1996xan, Atlantan, finalerdixetara iritsi zan. 1995eko Europeuetan brontzezko domiña irabazi eban Zuñigak, gure herrixan jaixo bazan be, Gasteizen egin dau bere kirol ibilbide nagusixena. Anekdota modura, T5-ko "Supervivientes" saiua irabazi eban.





**Eskubaloi**ko **AITOR ETXABURU** izan da hirugarren olinpiarra Eibarren. Arraten jokatzen hasi zan pibotak Bartzelonan, Santanderreko Tekan, Granollersen eta Bidasoan egiñ eban kirol ibilbidia, 2001ian erretirau arte. Selekziñuarekin 87 bidar jokatu eban eta brontzezko domiña eskuratu eban Atlantako olinpiadetan, Bartzelonakuetan bosgarren postuan amaittu eta gero. Domiña irabazi daben Eibarko bakarra da eta, hainbat urtetan Irungo Bidasoako entrenatzaille jardun eta gero, 2010etik Iruñako Anaitasuna zuzentzen dau: azken talde honek Arratek lagatako tokixa hartu dau Asobal Ligan.

## Areto-foballa hurrengo denboraldiaren zain



**ADI-ADI DAUDE DEBABARRENA ARETO-FOBALLEKO TALDEAREN ARDURADUNAK** hurrengo denboraldiaren nondik-norakoak ezagutzeko irrikitan. Egoera ekonomikoak hainbat talderen desagerpena ekarriko duelakoan, maila eta multzoetako berregituraketek eragina izango dutela horien osaketan eta horrek arduratzen ditu. Une honetan, talde nagusiak prestatzaileen ekipoari eutsiko dio, baina jokalarietan aldaketa nabarmenak izango ditu: Ekaitz eta Kiki atezainek eta Labaka, Xabi Pérez, Alex Alonso eta David Garrido jokalariek jarraituko dute. Bigarren taldeak, bestalde, hainbat aldaketa izango ditu bere egituran, Euskal Ligara igo baita: hor beteranoen eta jende gazteen arteko konbinaketa egin nahi dute zuzendaritzakoek eta entrenamenduak ere serioagoak izango dira denboraldi berrian. Jubenil eta kadete mailako taldeekin orain arte moduan jarraitzeko asmoa dute.

**Alex Santiago jokalari berria**

Infantil mailatik Eibar KE-rekin jokatu duen Alex Santiago foballariak areto-foballeko Debabarrenarekin jokatuko du hurrengo denboraldian. Iaz Ohorezko Mailako Urko talde jubenilarekin jokatu zuen jokalariak debuta egingo du horrela modalitate berrian. Hegal-pibotean jokatuko du, bere teknika eta golerako erraztasunaz baliatuz; aurredenboraldia lehenengo taldearekin egingo du.

## Kalamua Korrikalari Taldea, Ehunmilako bigarren hirukote onena

**ASTEBURUAN BEASAINEN JOKATUTAKO EHUNMILAK ULTRA-TRAILAREN 3. EDIZIOAN** zortzi eibartar izan dira: euretatik bost Ehunmilan (168 km. eta 11.000 metroko igoera metatua) eta beste hirurak Goierriko Bi Haundietan (88 km. eta 6.000 metroko igoera). Munduko ultra-trail gogorrenetarikoa da Beasainen hasi eta amaitzen den hori, tartean Azkarate, Ernio, Txindoki, Etxegarate eta Aizkorri gainditu ondoren. Ehunmilakoan Iosu Elejalde, Jabi Aldai eta Igor Azurmendi 65., 66. eta 67. postuetan helmugaratu ziren, taldekako sailkapenean Eibarko Klub Deportiboa - Kalama Korrikalari Taldeko hirukotea bigarren postuan sailkatuz (41 ordu eta 13 minutu), irabazleengandik bi ordura. Proba berean, Edu Uribek 45 ordu eta 21 minutu behar izan zituen eta Asier Gardek proba bertan behera laga zuen arazo fisikoengatik. Ez zen bakarra izan, 187 lasterkaritik 112 besterik ez baitziren helmugaratu.



Eibarko hirukotea podiumean, egun eta erdi pasatako proba amaitu ondoren.

Proba laburragoan, Goierriko Bi Haundietan, Juanra Rodríguezek 23. postuan amaitu zuen (13 ordu eta 35 minutu), Raul Fernándezek 82.ean (16 ordu eta 11 minutu) eta Natxo Garaik 138.ean (18 ordu eta 17 minuto). Hor 257 korrikalarik ekin zioten probari eta 197k amaitu.

## San Andreu nagusi Mutrikuko waterpolo torneoan



**MUTILETAN ZEIN NESKETAN, KATALUNIAKO TALDEARENTZAT IZAN ZIREN** final biak: emakumezkoetan 1. nazional mailan jokatzen duen Askartza Leioari irabaziz eta gizonezkoetan Universidad Autónoma de Barcelonari, oso borrokatua izan zen partiduan. San Andreurendako izan zen, beraz, jokoan zegoen Urrezko Balea, waterpoloko 5 Itsasoan torneoko seigarren edizioan. Senior mailako hamabi taldek hartu zuten parte eta bosna emakumezkoetan eta infantiletan; azken horretan Waterpolo Donosti izan zen onena eta Urbat 3. postuan sailkatu zen.

Esklerosi anitza duten gaixoen aldeko zozketan, 608 zenbakia izan zen saritua eta bere jabeak jasoko du 180 euroko balea. Irabazlea ez bada agertzen, honakoak dira ordezko bi zenbakiak: 704 eta 178.

## Ziaran onena Andutz-en

**AURREKO ZAPATUAN JOKATUTAKO ANDUTZ-EKO IGOERAREN** 3. edizioan, eibartarra garaile izan zen emakumezkoen proban. Probak Itziarko plazan hasi eta, aldapa motz baina ezin gogorragoari jarraituz, Andutz-eko gainara eramaten du, han gurutzea ikutu eta partehartzaileak plazara bueltatzeko, guztira lau kilometro eta erdi eginez.



# Eibar KE-k 3-0 galdu zuen Realarekin Azpeitian



Garitanok Patxi Ferreira izango du lagun taldea zuzentzeko.

**HERENEGUN, AZPEITIKO GARMENDIPE ZELAIAN, ORAIN DELA BI HILABETE** Realeko jokalaria izateari laga zion Mikel Aranbururen omenez jokatutako partiduan, Gaizka Garitanoren taldeak 3-0 galdu zuen Realarekin. Hori izan zen aurredenboraldiko lehenengo partidua eibartarrentzat eta donostiarrek azken 20 minutuetan erakutsi zuten nagusitasuna, batez ere. Honakoak izango dira hemendik aurrera gorri-urdinek jokatu beharreko lagunarteko partiduak: Osasunaren aurka, Aiozen (uztailaren 24an); Sestao River-en aurka, Zarautzen (uztailaren 28an); Leioaren aurka, Sarrienan (uztailaren 31n); Zallaren aurka, Landaberrin (abuztuaren 4an); Santanderreko Racing-aren aurka, Ipuruan (abuztuaren 8an); Laudioren aurka, Laudion (abuztuaren 14an); eta Reala B edo Sanse-ren aurka, Bergaran (abuztuaren 18an). Partidu horiek jokatuta ekingo dio liga denboraldi berriari gure herriko lehenengo taldeak.

# Eibartarrak maila onean Elgoibarko tenis torneoan




**LUR IBARGUTXIK GALDU EGIN ZUEN SENIOR MAILAKO FINALEAN**, Abel Hernández elgoibartarrari gogor aurre egin arren: emozio handiko partidua izan zen. Baina izan dira eibartar gehiago Elgoibarko 4015 klubak antolatzen dituen tenis eta padel torneoetan. Esaterako, tenisean ere eta infantil mailan, Koldo López eibartarrak jantzi zuen txapela, finalean Oier Martínez ermuarraren lana gainditz. Alebinetan txapela Debara joan zen (Ion Gandiaga) eta padelean Jose Luis Etxaniz eta Patxi Ballejos bergararrak izan ziren onenak.



# Espainiako Itzulia Eibarren abuztuaren 20an

**ESPAINIAKO ITZULIAREN HIRUGARREN ETAPA ARRATEN AMAITUKO DA** eta hurrengo egunekoa Eibarren hasiko. Zaleek aukera berri bat izango dute txirrindulari onenak gertutik gertura ikusteko, 1. mailako mendatean amaituko den etapa hori motz samarra izango baita, ikuskizunarentzat aproposa (150 kilometro izango ditu). Egun horretan txirrindularitza-giroa nagusituko da herrian, Untzagan eta Txaltxa-Zelaian kokatuko diren esparruekin: umeendako jolasgunea, produktu eta dastalekuekin. Bulego Iraunkorra, bestalde, Hezkuntza Esparruan kokatuko da eta taldeen autobusak Azitaingo industrialdean egongo dira.



# Guanedo eta Naranja Mekanika elgoibartarrak, foball-7aren finalean

**ELGOIBARKO TALDEAK DIRA GAUR UNBEN, 20.00-ETATIK AURRERA**, Elgoibarko eta Eibarko Kirol Patronatoek antolatuta urtero jokatzen den foball-7 torneoko aurtengo finala jokatuko dutenak. Finalerdiak ere Unben jokatu ziren eta ez zitzaien, ez, emoziorik falta: Naranja Mekanikak 4-3 irabazi zion Egs-ri eta Guanedok penaltietan kanporatu zuen Recreativo de Juerga, partidua banako emaitzarekin amaitu eta gero. Finala jokatu aurretik, Egs-k eta Recreativok jokatuko dute 3. eta 4. postuak erabakitzeko: hor ere elgoibartarren arteko lehia izango da.



# Sariak gure herriko eskubaloiarentzat

**ESKUBALOIKO GIPUZKOAKO FEDERAZIOAK HAINBAT SARI** banatu zituen denboraldiaren amaiera aprobetxatuz eta, Donostiako ekitaldi horretan, Eibar Eskubaloia klubeko senior, jubenil eta kadete taldeek ondo merezitako sariak izan zituzten: kadete mailako taldearen hiru jokalarik jaso zituzten. Aldi berean, kirol horren alde orain dela hilabete batzuk hildako Miguel Diegok egindako lana azpimarratu zen eta bere alargunak jaso zuen plaka bat eskaini zitzaion.

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

**BALATZ C.B.**
instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 — Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net — Faxa. 943 20 04 94

**trinmer**
Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com
TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK

## AROTZAK

**IÑAKI**
Egurrezko mota guztietako lanak
Ateak - Tarimak Altzariak
Milaflores 10 — Tfnoa. 943 20 35 55

**iraner**
ateak EDER aroztegia
Ateak, horma-armairuak, tarimak...
Burdindegiko artikuluak salgai
Giltzen kopiak
Ebanisteria
Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)
943-174925 iranercb@gmail.com

**ulmar S.L.**
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

**ELECTRICIDAD CUADRA EC**
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA MANTENUA
PROIEKTUAK

**GURIA**
ELEKTRIZITATEA
* *Muntaia eta proiektu elektrikoak*
Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**
Superfizie mota guztietako **garbiketa** eta **mantenimendu** zerbitzua
Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171
Barrena, 21 - 1. F

**TREJO GARBIKETAK S.L.**
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta mantenimendua

## HODI-LIBRATZEAK

**ATAX**
— Hodi-libratzeak
— Saneamenduen garbitzea presio handiko makinariarekin
— Ur ateratzea ufalen ondoren
www.desataxcos.com
LARRIALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

## IGELTSEROAK

**IGELTSERITZA CAMILO ALVAREZ OROKORREAN**
– **Barne erreformak** (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
– **Gremioen koordinaketa**
**Jardiñeta, 25** - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104

**irazabal**
Jose Maria Irazabal, S.L.
ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

# Informazio gehiagorako

943 20 67 76


## ITURGINTZA

K21
MUGICA
ITURGINTZA
AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...
**HANSGROHE** KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA
Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskaltel.net
☎ eta faxa: 943 20 39 03

## PINTURAK

AIXA
Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak
Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

PINTURAS ARRATE, S.L.
- Nexa Autocolor
- Pintura industriala
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Pinturas Elías e Hijo, S.L.
*pintura eta estaldura mota guztiak*
BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97

MALVAR PINTURAS
Sostoa, 16 ac behea
*Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900*
*Mobila. 656 784 396*

Pintura
Goi mailako dekorazioa
Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98
MAYO

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN
BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
*Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-*
*696-565394 / 943-030540*
*victor-fraiz@hotmail.com*

## SARRAILAGINTZA

K21
GILTZAK
Era guztietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu
LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)
Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

# Udako ikastaroetan murgilduta

## "ERREPIKATZEKO MODUKOAK DIRA"

***Aurten antolatutako ikastaroak bihar amaitzekotan direnean**, Markeskuako eskaileratan gora eta behera ibili dira ikasleak.* ***Alfonso Tejedor*** *Teknologia eta Informatikako irakaslea da Zallako institutuan eta Udako Ikastaroetako ikaslea. Hiru ikastarotan parte hartu du, hirurak ingeniaritza eta teknologia arlokoak: "Scratch: teknologia berriak ikasgelan. Multimedia garapenak helburu pedagogikoekin", "Smartphonetako aplikazioen programazioa Titanium erabilita" eta "Murgildu robotikan Lego NXTrekin".* "Teknologiako irakasleok eguneratu egin behar ditugu gure ezagutzak eta curriculum-a ere berritu behar dugu", *adierazi du Alfonso Tejedorrek. UEUk ikastaroen eskaintza oparoa du eta* "uda eta opor garaian eta ikastaroen ordu kopuruak hona etortzea errazten dute". *Izan ere, ordu gutxiko iraupena duten ikastaroak izaten dira orokorrean. Ikasleek gai*



*baten inguruan lehendabiziko kontaktua izan dezaten balio dute, baina ondoren klasean ikusitakoa sakondu nahi izatea norberaren esku dagoen zerbait da. Gainera* "ikastaroen banaketak bat baino gehiagotan izena emateko aukera ematen du", *esan du Tejedorrek. Horrez gain,* "zure egoera berdinean daudenak ezagutzeko aukera ematen dute, eta ideiak trukatu ahal dituzu", *gaineratu du teknologia eta informatikako irakasleak.*

## Ikastaroetako aztarnak

### FERNANDO MIJANGOS: *"Nahastuko ez bagenu denen onurako izango litzateke"*



Azken hilabeteotan hondakinen kontuak berebiziko garrantzia hartu du gure gizartean. Gai hori lantzeko, Fernando Mijangosek koordinatuta, ***"Hondakinen kudeaketa eta tratamendua"*** ikastaroa antolatu du UEUk. Ikastaro hori urtean zehar landuko den graduondokoaren sarrera da.

Fernando Mijangos (Kimikan doktorea, EHUko irakaslea eta UEUko kidea), **Juan Carlos Alduntzin** (GFAko Ingurumena eta Lurralde Antolaketa arduradun ohia), **Imanol Azpiroz** (Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketarako enpresa publikoko administrazio kontseilukidea) eta **Joxe Mari Irazusta** (Gipuzkoako Zero Zaborreko ordezkaria) izan dira klaseak ematen.

**Fernando Mijangos:** *"Atez ateko bilketa, gaikako bilketa egin beharko genukeela pentsatzen dut: papera, plastikoa, metala... eta, horrela, hondakin guztiekin. Nahastuko ez bagenu, trataera askoz errezagoa izateaz gain, denen onurako izango litzateke. Horrez gain, hondakin organikoa erabili ahalko litzateke konpostajea egiteko. Horrela ez ginateke sartuko lehengaien eskasian. Berez, orain lurrak lehengaien beharra duelako; eta guk, produktu berriak egiteko, lurrari lehengai horiek kentzen badizkiogu, azkenean lehengaien eskasia izango dugulako. Hondakina ez da gure bizitzatik soberan dugun zerbait, baizik eta lehengaia; eta horri beste bizitza berri bat, beste etekin bat, atera behar diogu".* EHUk 2011tik aurrera daraman proiektu batean lan egiten du: zakarrontzira botatako olioarekin biodiesela sortzen. *"Sistema hau ordezkoa da, energia berriztagarria eta ez du ura zikintzen".*



### IDURRE ESKISABEL: *"Izenak asko esan nahi du: izanaren zatia ere bada"*

Idurre Eskisabel kazetari eta EHU/UPVko irakasleak "Izena eta izana: euskal izendegia eta sexuaren araberako bereizketa" hitzaldia eman zuen ikastaroaren barruan. Eskisabelek antropologiako ikerketa proiektuan tesina egin du gai horren inguruan eta tesia ere inskribatuta dauka horretan. Bere ustez, izenek *"uste duguna baino askoz ere gehiago"* eragiten diote identitate soziokulturalari.

Izen bat hautatzerakoan, alde bi ikusten ditu Eskisabelek: batetik, *"gure euskalduntasun"* hori islatzen dela azaldu du, euskalduntasuna hor oinarritzen dela. *"Izen bat jartzean, nolabait, gure identitate kolektiboa eratzen ari gara: nor garen esaten, nor garen definitzen"*, azaldu du. Bestetik, euskalduntasun ikuspegi horretaz gain, gizon izatea eta emakume izatea zer den ere definitzen dugu izenarekin. *"Egon dira izendegi batzuk gaur egun euskaltzain diren batzuk eginak izenen anbiguetate edo izen mistoen tradizio hori defenditzen dutenak"*. Baina 2001ean Euskaltzaindiak ezezkoa eman zion horri, euskarak berezko sisteman, bere nortasun muin horretan, beti izan dituela gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako izenak argudiatuz. Eskisabelek azaldu du badagoela *"uste oker bat"*; izan ere, jendeak pentsatzen du Euskaltzaindiak duela azken hitza umeen izenei buruz, eta ez da horrela, tokian tokiko epaileek dute. Baina euskal izenei dagokienez, ia epaile guztiek Euskaltzaindiari egiten diote normatibizatzearen aitortza. Beraz, ia toki guztietan Euskaltzaindiaren aholkuak jarraitzen dira.

## "Gauza guztien gainetik, Txillardegi lagun ona zen"



UEUk beren Udako Ikastaroen 40. urteurrena ospatzeko antolatutako 40 ikastaroen artean, Txillardegi omendu du: euskal gizartearen alde borrokatu, eta baita UEUren alde ere lan handia egin zuelako. **Ander Iturriotz**ek eman zion hasiera ikastaroari eta, hurrengo egunean, **Iñaki Gaminde, Joseba Felix Tobar, Gotzon Aurrekoetxea eta Gabirel Ezkurdia** izan ziren soziologian doktore denari txanda hartu ziotenak. Guztiek izan zuten parada Txillardegi pertsonalki ezagutzeko, eta horrek indar gehiago eman zion ikastaroari.

Txanda hartzen lehena Gaminde izan zen. Berarekin, Txillardegik euskal azentuaren inguruan egindako lana sakontzeko aukera izan zuten ikasleek eta, bide batez, bere esperientzia pertsonala ere kontatu zuen. Hurrena Joseba Felix Tobar izan zen, "Euskal Herria independentziaranzko bidean" gaia lantzeko. Bertan Txillardegik borrokatutako beste atal bat landu zuten, Euskal Herriaren Independentziarena. Ondoren, Gotzon Aurrekoetxearen txanda izan zen, "Txillardegiren ekarria Euskal Dialektoari" gaia landuz. Azkenik, Gabirel Ezkurdia nazioarteko gaiez adituak zenbait independentzia-prozesu azaldu zituen, Euskal Herrikoa abiapuntu hartuta.

